

Maite nuen



Maite nuen

Jatorrizko izenburua: Je l'aimais

Egilea: Anna Gavalda

Itzultzailea: Xabier Payá

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Alberdania

MIKEL GARMENDIA

Erakutsia zigun lehendik ere Anna Gavaldak emozioak helarazteko eta sentiarazteko duen abildade berezia duela urte batzuk Alberdaniak kaleratutako *35 kilo esperantza* eleberrian. Prosa lañoa darabil horretarako, deskripziorik gabea (“ez baitakit deskripziorik egiten, eta Zola eta Prousten ondotik ez baitute zentzurik”, Gavaldak aitortzen digunez). Horrek, aldi berean, erraztu egin dio, neurri batean eta alde horretatik, bere lana Xabier Payá itzultzaileari. Esan beharra dago, halere, oso bertsio txukuna ondu duela Xabierrek, euskaraz sortua dirudiena, Gavaldaren prosa lañoari, bere xumean, euskarazko doinua itsatsi baitio, hitz eta esamoldeen aukeraketan natural eta ausart jokatu.

Bi istorio joango zaizkigu paraleloan eleberri labur honetan: batetik, Chloé-rena, bi seme-alabaren ama, senarrak utzi berri duena, eta, bestetik, bere aitagarrebarena, Chloé-ren senar izandakoaren aita eta urteetan bere sekretua inori kontatu ez diona, harik eta Chloéri kontatuko dion arte. Sekretuaren kontaketa honek sortzen duen interakzioa izango dugu bi istorio paraleloak egituratzen dituen ardatza. Ispilu-joko batean bezala azalduko zaizkigu desamodioa bizitzeko bi era: batetik aitarena, berrogei urte zituela eta ezkondua egonik beste emakume batekin zeharo maitemindu arren, bere buruari uko egin eta aurreko egoerari eusteko erabakia hartzen baitu eta, bestetik, semearena, guztiz kontrako erabakia hartzen baitu. Oso emankorra da, alde horretatik, sekretuaren baliabidea literaturarako, literatura besteen intimitatea ezagutzeko ere badelakoan. Zenbat eta zenbat sekretu –eta nolakoak!– ez ziren lurperatuko sekretuaren jabeekin batera. Mundu oso bat, beste hainbat eta hainbat bizitza balizko...

Besterik balirudike ere, baikorra da –izan daiteke?– eleberriaren mezua, didaktikokeriatik urrun, hain aukera desberdinak aurrean jartze hutsa aski iradokitzailea denez gero.